

Vitoria-Gasteiz da hazkunde begetatibo positiboa duen Euskal Aeko hiriburu bakarra, Eustaten “Udal-adierazleak 2006”ko emaitzen arabera

251 udalerrien datuen artean, adierazi da Donostia-San Sebastian dela migrazio-saldoa negatiboa duen hiriburua

EUSTATEk duela gutxi argitaratu ditu bere web gunean 2006. urteko "Udal adierazleak. Serie estatistikoak"; bertan Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udalerriei eta eskualdeei buruzko informazio zabala bildu du (140 adierazle baino gehiago). Lurraldea, biztanleria, hezkuntza-sistema, euskara, establezimenduak eta etxebizitzak, okupazioa eta langabezia, egitura ekonomikoa, ospitaleak eta ospitalez kanpoko zentroak, banku-bulegoen kopurua, ibilgailu-parkea edo errenta pertsonala eta familiarra dira lan honetan jasotako kapitulu handietako batzuk.

2005ean bezala, edizio honetan ere atzera begirako informazio guztia gure Web-ean jarri dugu, udal-errealitatearen hainbat alderdik izandako bilakaeraren azterketa errazteko helburuarekin. Ildo horretatik, aipagarria da biztanleriaren informazioari dagokionez, 1900. urtetik gaur artekoa jasotzea.

Lurraldea eta demografia

Euskal Aeko udalerriak oso anitzak dira **tamainaren** aldetik, Vitoria-Gasteizen 276,8 km²-tik Lanestosaren 1,2 km²-rainoko tartean. Udalerrriaren fisionomiarekin jarraituz, Portugalete da, km²-ko 15.665 biztanlerekin dentsitate handienekoa, biztanle-kopuru altuak eta udalerrriaren tamaina txikiak (3,2 km²) eraginda. Jarraian Sestao eta Bilbao datoz, km²-ko 8.671 eta 8.569 biztanlerekin, hurrenez hurren. Dentsitate txikieneko udalerrria, aldiz, Valdegobia dugu, km²-ko 4,3 biztanlerekin.

Biztanleriari dagokionez, Euskal Aeko hiru hiriburuak dira erkidegoan biztanle gehieneko udalerriak. Bilbaok 354.001 biztanle ditu, Vitoria-Gasteizek 225.631 eta Donostia-San Sebastianek 184.012. Beste muturrean, biztanle gutxien dituztenak Arakaldo (95 biztanle) eta Orexa (83 biztanle) dira.

Hazkunde begetatiboari dagokionez, 2004. urteko azken datu eskuragarrien arabera, Vitoria-Gasteiz da hazkunde begetatibo (jaiotzak ken heriotzak) handiena (471) duen udalerrria. Bestalde, Bilbaok ageri du txanponaren beste aurpegia -676 biztanleko hazkunde begetatibo negatiboarekin; segidan datoz Donostia-San Sebastian (-159), Barakaldo (-129), eta Portugalete (-74). Jaiotza-kopuruari dagokionez, hiru hiriburuak nabarmetzen dira: Bilbao 2.886 jaiotzarekin, Vitoria-Gasteiz 2.118 jaiotzarekin eta Donostia-San Sebastian 1.568rekin. Jarraian Barakaldo (737) eta Getxo (690).

Migrazio-mugimenduak kontuan hartuta, udal-adierazleek jasotako datuek adierazten dute Bilbaoko migrazio-saldoa 2.871 biztanlekoa izan zela, Vitoria-Gasteizkoa 2.375ekoa eta Donostia-San Sebastianekoa negatiboa (-181).

Etxebizitza eta jarduera ekonomikoa

Etxebizitzen atala aztertuta, ikusten da esaterako Bilbaok 130.312 etxebizitza nagusi dituela, Vitoria-Gasteizek 77.831 eta Donostia-San Sebastianek 65.875. Udal-adierazleen bidez, beste hainbat daturen artean, etxebizitza nagusien kopurua ere ikus daiteke, berauen instalazioen eta zerbitzuen arabera.

Eskuragarri diren beste datu batzuk udalerrietako **jarduera ekonomikoaren** informazioa ematen dute. Horrela, establezimendu-kopuruaren, euren jardueraren (industria, eraikuntza, merkataritza, banka,...) eta enpleguaren berri ere izan dezakegu. Zehatzago, Bilbaok 35.276 establezimendu eta 156.677 enplegu izan zituzten, Donostia-San Sebastianek 20.524 establezimendu eta 83.711 enplegu, eta Vitoria-Gasteizek 17.651 establezimendu eta 102.651 enplegu.

Hiru hiriburuetakoko **langabezi erregistratuari** erreparatuta, 2005ean Bilbaok 15.688ko zifra izan zuen, Vitoria-Gasteizek 8.629koa eta Donostia-San Sebastianek 6.064koa.

Jardueren araberako **biztanleria landuna** kontuan hartuta, Bermeo (1.207) eta Ondarroa (804) dira nekazaritza eta arrantza diharduten biztanle gehien dituzten udalerriak. Bilbao, Vitoria-Gasteiz eta Donostia-San Sebastian dira, ordena horretan, eraikuntza- eta zerbitzu-sektoretan lehen postuak betetzen dituzten udalerriak, eta industrian Vitoria-Gasteizek (30.233) aurrea hartzen die Bilbaori (22.423) eta Donostia-San Sebastiani (12.372).

Azterketa ekonomikoak Euskal AEko udalerrien **batez besteko errenta pertsonala eta familiarra** ere aztertzen ditu. Laukiz (23.363 €), Sukarrieta (18.458 €), Gatzaga (18.094 €) eta Getxo (17.823 €) dira errenta pertsonalik altueneko udalerriak. Hiru hiriburuetan lehena Donostia-San Sebastian (14.895 €) dugu, jarraian Vitoria-Gasteiz (13.731 €) eta Bilbao (12.881 €). Errenta baxueneko udalerrria, berriz, Karrantza Harana dugu, 8.087 euroekin.

Errenta familiarrari dagokionez, Laukiz (70.922 €), Gatzaga (45.457 €) eta Getxo (45.353 €) dira sailkapenean buru. Donostia-San Sebastianek 34.225 € ditu, Vitoria-Gasteizek 32.213 € eta Bilbaok 29.730 €. Zerrenda itxiz, batez besteko errenta familiar txikienerako udalerrria Lanestosa dugu, 18.011 €rekin.

Zerbitzu-ekipamendua

“Udal-adierazleek” udalerrien ekipamendu-mailaren eta zerbitzuen edo baliabideen berri izateko aukera ere ematen digute. **Osasun-ekipamenduen** kasuan ikusten da ia udalerririk guztiek dutela gutxienez osasun zentro publiko bat edo ospitale bat. Salbuespen gehienak baserri inguruko udalerririk txikiak dira, 1.000 biztanlelik beherakoak. Hiriburuei dagokienez, Bilbaok 13 ospitale ditu, Donostia-San Sebastianek 7 eta Vitoria-Gasteizek 6.

Udalerrien ekipamendu-mailaren beste alderdi bat **banku-bulegoen** kopuruak ematen digu. Euskal AEn banku pribatuen bulego-kopurua (732) aurrezki-kutxena (701) baino apur bat handiagoa da eta zerbitzu-mota horretako gehienak hiriburuetan kokatzen dira. Zehatzago, Bilbaok 337 bulego zituen, Vitoria-Gasteizek 206 eta Donostia-San Sebastianek 163.

Irakaskuntza eta euskara

Kontsulta daitekeen beste adierazle bat hezkuntza-sistema dugu. Kasu honetan udalerrri bakoitzean ikasten ari ziren ikasleen kopurua jakin dezakegu, hezkuntza-mailaren (haur hezkuntza, lehen hezkuntza, BDH, batxilergoa, LH,...), ikasteredu elebidunaren (A-X, B, D) edo ikastetxearen titulartasunaren (publikoa, pribatua edo ikastola) arabera.

Esan bezala, "Udal-adierazleek" **ikasteredu elebidunen** arabera ikasle-kopuruaren datuak ere ematen dituzte. Horrela, jakin dezakegu Bilbaon 26.309 ikaslek A erudian ikasi zutela, 12.799k B erudian eta 13.648k D erudian. Donostia-San Sebastianen, ostera, D erudia da nagusi (13.910 ikasle), A (9.101 ikasle) eta B (10.148 ikasle) erudien aldean. Azkenik Vitoria-Gasteizen 19.231 ikaslek ikasi zuten A erudian, 10.243k B erudian eta 8.410ek D erudian.

Halaber, 2 urte eta gehiagoko biztanleen **euskara-maila orokorra** ere jasotzen da beste atal batean. Balio absolututan hiru hiriburuek dituzte euskaldun-kopuru handienak: Donostia-San Sebastianek 60.415, Bilbaok 53.051 eta Vitoria-Gasteizek 31.482. Atentzioa ematen dute biztanleen gehiengo handia euskalduna duten udalerriek. Esaterako Markina-Xemeinen 4.604 biztanletik 4.084 dira euskaldunak eta Mutrikun 4.655 biztanletik 4.006.

Bukatzeko, Euskal AEko udalerrrien beste hainbat adierazle ikus daitezke, bestek beste udal bakoitzaren gastuaren aurrekontu-likidazioa, ibilgailuen eta nekazaritzako makinariaren parkea, nekazaritzako azaleraren banaketa edo udalerrri bakoitzeko gizarte-zerbitzuetako zentro-kopurua.

Oharra:

"Udal-adierazleak, 2006" lanaren informazio guztia eskuragarri dago Eustaten web-ean, www.eustat.es/estad/municipal_e.html helbidean.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Manu Riveiros

Tlf: +34-945-01 75 62 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es